

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa biztanleria aktiboari eta bete beharreko lanpostuak daukaten enpresei bideratuta dago. Aplikazioa beraien artean harremanak finkatzeko zuzenduta dago, beren lanpostu hutsak betetzeko beharrak asetzeko. Bi bezeroen ezaugarri komuna beraien lan-etorkizuna planeatu nahi dela da. Gure merkatura merkatu segmentatua da, gure bezeroak bi segmentuetan banatuta baitaude.

Baliagarria izango da lan egiteko orduan muga geografikoa errespetatuta ikusi nahi duten pertsonentzat, bai kanpoan lan egin ezin dutelako, bai eremu jakin batean lan egin nahi dutelako, edo mugikortasun gutxiago daukaten pertsonentzat ere baliagarria izan daiteke.

Gainera, aplikazioak atal bat izango du, erabat doakoa, aplikazioko gainerako atal guztiak bezala. Bertan, erabiltzaileek beraien lan-etorkizunari buruzko hainbat galdera egin ahal izango dituzte. Galdera horiek agente pertsonal kontratatu batek, gaitu eta lan-gaietan espezializatu dagoena erantzungo ditu zehaztesunez.

Hau da, gure aplikazioa ezaugarri desberdin askotako pertsonentzat bideratuta dago, guztiok lan bat aurkitu ahal izateko erabilgarria izan daiteke. Beraz merkatu oso zabal batean lan egiten du aplikazio honek eta lan baldintza aproposagoak aurkezten ditu.